

San Telmori buruzko bilera berezia

San Telmo museoari buruzko bilera berezia egingo da datorren ostegunean, hilak 13, Miramar jauregian. Bertan udal teknikariek, alderdi politikoetako ordezkariak, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak eta zenbait kultur elkartetako kideek parte hartuko dute. Gogoan izan San Telmo museoaren etorkizuna ez dagoela batere argi, izan ere, museo horretarako egindako azken egitasmoak bertan behera geratu dira. Gainera, museoak zuzendari Rafa Zulaikak dimisioa aurkeztu zuen eta honek arazoa larriagotu egin du. Egoera honi buelta emateko bideak aurkitzeko antolatu du Udalak bilera berezia.

Une honetan, K-6 enpresa museoaren definitzeko egitasmoa egiten ari da, eta sei hilabete barru prest egotea aurreikusitako antolatutako Udalak. Bestalde, zuzendaria ere izendatu nahi dute datozen hilabeteotan.



Hiri miri

Lanperna taberna porrako irabazle

Realak eta Osasunak urriaren 26an jokatu behar zuten derbiari begira, IRUTXULOK porra egin zuen tabernen eta jatetxeen artean. Porraren irabazle Igarako Lanperna taberna izan da. Lanpernakoek, beraz, Arzak jatetxean bi laguntzako bazkaria edo afaria irabazi dute. IRUTXULOKO porran 50 tabernek eta jatetxek parte hartu zuten eta bakar batek asmatu zuen emaitza: 1-0. Ondorioz, ez zen zozketa egin behar izan emaitza asmatu zutenen artean. Zorionak Lanperna tabernari eta on egin!

Saihesbidea oso arriskutsua



Donostiako saihesbidea (A-8) Gipuzkoako errepide arriskutsuenetakoa da. Hala dio Gipuzkoako Foru Aldundiak istripuei buruz egin berri duen txostenak. 2002ko hasieratik 2003ko abuztuaren 30era arte, 167 ezbehar izan ziren Donostiako saihesbidean. Era berean, Herrera eta Pasaia arteko N-1 errepideko zatia ere arriskutsutzat jo du aipatutako txostenak.

Eklipsea ikusteko aukera

Larunbatean, hilak 8, ilargi eklipsea izango da. Hori dela eta, Miramongo Zientziaren Kutxaguneak egitarau berezia antolatu du. Batetik, planetarioko eta astronomia aretoko tresnen bidez, eklipsea ikusi ahal izango dute gerturazten direnek. Bestetik, eklipsearen nondik-norakoan berri emango dute zenbait adituk. Guztia, doan. Eklipsea 23.00etatik 04.00etara ikusi ahal izango dugu Donostian. Azaroaren 16an ere museoaren dohainik bisitatzeko aukera izango da. Hori bai, sarrerak aldeztatik hartu beharko dira (943012478).

Aparkalekuaren auzia konpontzeke

Donostiako ospitaleko langileek aparkalekua dohainik izateko mobilizazioekin darraite, eta aste honetan kontzentrazioak egin dituzte egunero. Joan den astean zabaldu zen ospitaleko aparkalekua, eta behin behineko langileek eta gaixoen senideek, aparkalekuaren truke, dirua ordaindu behar dutela erabaki du Osakidetza. Aparkalekua denentzat dohainik izatea eskatu dute langileek. Beste horrenbeste eskatu dute erabiltzaile askok ere, 600 kexa jaso baitituzte dagoeneko ospitale horretako erabiltzaileen harrera zerbitzuan.

